

Irudikatzea, norabait iristeko eskailera

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Mantentzearekin, irautearekin lotua dago irudikatzea. Imitatzearekin ere bai. Norabait iristeko eskailera bat da, fisikoa edo mentala, eta erakartzeko bote-rea aitortzen zaio. Ofcom Britainia Handiko komunikazio bulegoaren arabera, erne gauden denboraren bi herenak pantaila aitzinean ematen ditugu: smartphonea, tableta, ordenagailua, telebista... Irudien erabat mendeko gara eta ez dugu gure burua babesten.

Horretarako lehenengo urratsa espazio hori kaltegarria izan daitekeela jakitea da; bigarrena, eragiten digula onartzea. Hala azaltzen du Yolanda Dominguez artista bisualak “Maldito este-

reotipo” liburuan. Dioenez, jaso dugun ondare bisualik handiena erlijio kristauarena da. Moja eskola batean ibilia, espantuz oroitzen du Eguberrietako funtziorako paperak banatu zituztene-koa. Bi ilara zeuden. Mutikoak hamaika modutan moztortuta zeuden: Jainkoz, itsasoa bitan zatitzen zuen Moisesez, ontzia eraikitzen zuen Noez, sarraskia agintzen zuen Herodesez, merkatariz, artzainez, gerlariz... Neskatoak, aldiz, berdin zihoazen denak: zuriz, eskuak bilduta, goiti begira. Amabirjinak esaldi bat baizik ez zuen gidoian eta mojak ea ongi ikasi zuten galdetzean 23 neska-txek batera erantzun zuten: «Bai! Egin dadila nigan zure borondatea».

Txikitan kontatzen zizkiguten ipuine-tan eta ikusten genituen marrazki bizi-dunetan maitasun erromantikoak mu-gitzen zituen pertsonaia femeninoak. Maskulinoak, berriz, ekintzak eta lanak. Protagonista nagusiak zuriak, heterose-xualak eta argalak izaten ziren, gainera.

Mapa bisualetan, gure burua aurkitze-az gain –gurekin antz handiena duten pertsonaiekin identifikatuz– nondik ibil gaitezkeen eta nondik ez ikusten dugu. Zorionez, eduki osasungarriak, anitzak eta aurreiritzirik gabeak sortzen ari dira gaur egun eta funtsezkoa da hori mun-du berriak eta erlazionatzeko era hobe-ak posible egiteko, irudikatzen ez dena ez delako egiten ahal. •

Hoa Munilla, hoa!

**Xabier Mikel
Errekondo**

Ez dakizue, baina bai, “monagillo” izan nintzen 10 urterekin Usur-bilgo Salvatore elizan, kuadrilla-ko beste dozena erdi gazte ino-zente bezalaxe. Mezak laguntzen nituen albotik, gona gorri eta blusa zuritan txintxo. Eta hileta elizkizunetan gorpua elizatik hilerrira gidatzen genuen itzain egurrezko gurutze beltz galanta eskue-tan. Ondoren apaiza eta atzetik senide-ak eta herritarrak.

Tarteka mezarako koroan abestu, tar-teka binajeratarako ardo goxoa eta os-tiak lapurtu. Inozentzia garaia zen, be-giak irekitzen hastekoa. Bizitzaz ez

genekien ezer, baina zeinen argi genuen “JulianTxiki” eta Benantxio apaiz oso ja-torrak zirela eta, aitzitik, beldurgarriak zitzaizkigula Don Julian erretore erral-doia, bere txapel eta guzti, eta Don Fran-cisco “Zubietako apaiza”, frankista.

Lehenak, kale jantzian, oso hurbileko-ak alaiak eta goxoak ziren. Beste biak al-diz, lurrerainoko sotana beltzean bilduta, kopetilun eta serio-demonio egiten ziguten errieta. Francoren garaia zuri-beltzekora lotu nahi gintuzten, “Nodo”-an bezala. Iskin egiten genien eta betira-ko joan zirenean poztu egin ginen, ezin ukatu.

Munilla ikusten dudanero haurtxo haren begitxo dardartiak sentitzen di-tut, eta horietatik argi dut ikusten bel-durra sorrarazten duen horietakoa de-la. Don Franciscok bezala gizartea atzera eraman nahi izan duela hamabi urte luze hauetan, txuri-beltzera. Eske-rrak ez dakit nori, azken meza pasa den igandean eman ondoren, badoa Gipuzkoako gotzain Munilla jauna, eta gipuzkoar gehienak, baita kristauak ez garenak ere, poztu egiten gara, ezin ukatu.

Hoa Munilla. Hoa! Urrun eta betiko. Amen. •